

J. Fernandez

Txinan gertatzen ari denari buruz analista asko ezkorregi ari direla uste du Jose Garcia Montalvo Barcelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko ekonomia katedradunak. Eredu ekonomiko aldaketa bat ikusten du Txinan, eta ziklo aldaketa bat munduan. Europari mesede egin diezaiokelakoan dago.

Hain txarto doa Txina mundu guztia dardarka jartzeko?

Txinako ekonomiaren arazoa ez da txarto doala, ziklo ekonomiko aldaketa batean dagoela baizik. Ohikoa da garapen bidean dagoen herrialde bat hamarkada batzuetan BPGaren %10etik gorako erritmoan haztea, baina azkenean erritmo hori jaitsi egiten da. Garatutako ekonomiak, asko jota, %3ko erritmoan hazten dira. Txinaren arazoa da desoreka handiak dituela, eta horrek asko zaildu dezake trantsizioa. %10ean hazita, mantan daitezke desoreka horiek, baina mantan daitezke %4an haziz gero? Horrek ematen dio beldurra mundu guztiari.

Zentzuzko dira desorekak?

Inbertsioa da gakoa. Txinak bere BPGaren zati izugarri handi bat inbertitzen du. BPGaren %50eko aurrezki tasara iritsi da, eta BPGaren %37ko inbertsioak egin ditu. Hainbeste denboran horrenbeste inbertitzen aritu ostean, gehiegizko kapitala pilatu da.

Txinak, beraz, ezin du jarraitu inbertsio eta hazkunde handiek.

Horregatik erabaki du alderdi komunista BPGaren aurrezkiaren zati handi bat kontsumo bihurtu behar dela. Horrela, inbertsioaren tokia hartuko luke kontsumoak, baina eredu aldaketa hori egitea ez da erraza. Bi urte daramatate bide horretan, eta ez dute ia ezer lortu. Soldadak ez badira laster behar beste handitzen, ezinezkoa da oinarria inbertsioetik kontsumora aldatzea.

Zer onura ditu eredu aldaketak?

Txina eta gainontzeko herrialdeen arteko ordainketa balantza orekatzan ari da. Txinaren aldeko %10eko desoreka zegoen, eta orain %2 inguruan daude. Txinatarrek gutxiago ari dira esportatzen, eta horregatik debalutatu zuten yuana. Eskari agregatuaren beste faktore bat da hori: atzerriko eskariak ez badu tira egiten, inbertsio faktorea goia jota badaukazu, eta ez baduzu kontsumoa handitzea lortzen... Zelan eutsiko diozu BPGaren hazkunderi eskariaren hiru faktoreak herren badituzu?

Zelan ari dira egoerari aurre egiten Txinako agintariak?



UPF

«Alde ona izan dezake, gure lehiakide batek arazoak dituelako»

Jose Garcia Montalvo • Ekonomia katedraduna

Garcia Montalvok uste du Txinaren krisia «hazkunderaren sinkronia» berri baten atarikoak izan daitekeela. Hau da, balitekeela herrialde garatuak berriz hazten hastea eta garabidean daudenak atzera egitea.

Bi kontu daude hemen. Batetik filosofikoa, ea merkatu ekonomia kapitalista bat egon daitekeen erregimen politiko autokratiko edo diktadura batean. Bestetik, guzti-guztia kontrolatzera ohituta dauden agintariek uste dutela merkatu ekonomia bat, merkatu globalean erabat parte hartzen duena, gobernutik kontrolatu daitekeela. Pentsamendu horrek beldur handiagoa ematen dit ekonomian gertatzen ari denak baino. Ezin da, aldi berean, politika komunista bat eta merkatu ekonomia bat eduki. Benetako merkatu ekonomia bat ezin da planifikatu.

Kontraesana hor dago.

Hilabete batean Txinako Gobernuak burtsan milioiak inbertitu ditu. Hori arriskutsua da, eta baita inbertitzaileei jazartzea ere salmentak egin dituztelako, edo analistek jazartzea ekonomia es-

pero baino okerrago zegoela esan dituelako.

Mundu osoan du eragina Txinako ekonomiak. Zenbateraino?

Batzuk pasatu egin dira tremendismoarekin. Zein da Txinaren benetako eragina? Asia hegokialdean eta Japonian eragin zuzena du. Australian ere bai, eta herrialdea hasi da pattaltzen. Afrikan eta Latinoamerikan ere eragin zuzena du. Baina Txinaren bi bloke antagonikoetan, AEBetan eta Europako Batasunean, zer eragin izan dezake? Zaila da pentsatzea oso eragin txarra izango duenik. Alderantziz, Txinak esportatzen ez duena EB ari da esportatzen, eta euroaren debaluzioak ere lagundu du. Alde ona ere izan dezake, gure lehiakide batek arazoak dituelako.

Baina hemengo finantza merkatuek ere badute beldurra.

Txinako burtsatik datozen au-

reikuspen negatiboez kutsatzearen beldur dira. Hori bai da arrisku bat, Europan oraindik ahul daudelako herrialde batzuk. Eta AEBetan ere arazo bihur daiteke, Txinak bat-batean esaten badio ez diola zor bonu gehiago erosiko.

Txina da AEBen zorraren hartzekodun nagusia.

AEBek galdetuko dute ea orain zeinek erosiko dion zorra. Gainera, printzipioz, igo egin behar lirarteke interes tipoak, eta finantza merkatuek ez dute hori nahi. Erreserba Federalak, hala ere, uste du oso gutxi igoko dituela edo ez dituela igoko. Baina Txinaren aldetik begiratuta ere arazo bat dago: milioika bonu ditu, 3,5 bilioi ditu aktiboetan, erreserbetan, eta haiek saltzen hasiko da. Baina interes tasak igotzen badira, Txinaren erreserbek ere balioa galduko dute.

Eta bestelako arazoak?

Txinan inbertsioak dituzten hemengo enpresak kaltetu daitezke, edo Latinoamerikako azpiegituren inbertitu duten enpresak. Latinoamerikako herrialde batzuk atzeraldian sartzen ari dira.

Badirudi Txinaren krisiak ekaitz perfektu bat ekar dezakeela: petrolioaren prezioa minimoetan dago, lehengaiena ere bai, dibisen gerra ate-joka dago...

Hori guzti hori egia da, baina begiratu behar da nori eragingo dion ekaitz horrek. Lehenago ere gertatu dena gerta daitezke, hazkunderaren sinkronia bat: herrialde garatuak berriz hazten hasia, eta garabidean dauden herrialdeak geratzea edo atzera egitea. Ez litzateke egoera arraroa izango. Petrolioaren merkatuek herrialde askori laguntzen die, Europari zalantzarik barik, eta baita lehengaien merkatuek ere. Ekaitz horretan benetako arrisku bat izan daitekeena da zero inguruko inflazioa duten herrialdeei, Europari adibidez, deflazio shock inportatu bat sartzea. EBZren ahalagin inflazionista guztiak kokolan jarriko litzuke horrek, ez delako diru kontu bat, arazo erral bat baino: lehengaiak merkeagoak dira eta kostuak ere bai.

Lurrikararen epizentroa Txinako burtsaren gorabeheretan egon da, baina burbuila baten ondorioa izan da.

Urtebetean %150 hazi zen Txinako burtsa, eta, beraz, oraingo jaitziera ezereza da. Gertatzen ari dena gehiago da etorkizuna askoz txarragoa izango ote den izua. Duda dago ez ote diren gezurra esaten ari Txinaren hazkunderaren galdotzearen inguruan. Ez da gauza bera %10eko erritmotik %7ra jaistea, edo %4ra. Epe ertainera %4-%5 inguruko erritmoan hazten ikusten dit Txinako ekonomia, bidez besteko errentaren arabera maila hori dagokiola.

Zenbat irauan dezake Txinaren trantsizio ekonomikoak?

Gakoa da trantsizioa hausturarekin edo barik egiten den. Benetako trantsizioa bada, eta lortzen badute tresnak biltzea hazkundera modu leunean aldatzeko, gutxi irauan dezake. Eskari agregatuaren iturri bat beste batekin ordezkatzetik badaukazu, errazagoa da. Arazoa da hausturarik badago, eskari agregatu berri bat sortzeko ekonomia apurtu behar baduzu, eta berriz berreraiki behar baduzu inbertsio gutxiagorekin eta kontsumo gehiagorekin. Hori prozesu luzea eta arriskutsua izango litzateke, iragarri ezina delako. Ezin da jakin bi bideetatik zein nagusituko den.